

16/17

25
Urteurrena
Aniversario

Miramongo Matinéeak Matinées de Miramón

Euskadiko Orkestra
Sinfonikoa
Orquesta Sinfónica
de Euskadi

Orkestraren Egoitza / Sede de la Orquesta 11:00 h



EUSKADIKO
ORKESTRA

Eusko Jaurlaritzako Herritaritza
Sociedad Pública del Gobierno Vasco



2016/2017 DENBORALDIA

MIRAMONGO MATINÉÉAK

25. urteurrena

Miramongo Matinéek 25 urte betetzen dituzte eta, lehenbiziko egunean bezalaxe, helburu dute egun ere kalitatezko musika formatu txikian eskaintzea, gero eta anitzagoa den gure ingurunekeo kultur esparruan. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak bere egoitzako ateak irekitzen ditu askotariko programazioa eskaintzeko; Orkestrako musikariek diseinatu eta interpretatutako egitarauen bozgorailu bihurtu eta bestelako errealitate musikal zein artistikoekin jartzen da harremanetan. 1991an sortu zenetik, Kutxa Fundazioaren babesa du ziklo honek.

16/17 denboraldia osatzen duten 16 ekitaldiak aurkeztuko ditugu jarraian. Horietan, Euskadiko Orkestrako kideen kontzertuei gehituko zaizkie, batetik, Orchestre de Pau Pays de Béarn orkestraren bisitaldia, Donostia 2016rekin lankidetzan; eta, bestetik, Donostiako Orfeoi Gaztearen errezital bat eta bertsolaritza, musika elektronikoa, hari-hirukotea eta pianoa uztartzen dituen proiektu bat, besteak beste.

Irailaren 24an abiatuta, kontzertuak larunbatetan izango dira, goizeko 11:00etan, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Miramongo egoitzan.

Abonuak jada salgai. 16 kontzertuetarako abonauk 83,50 euroko prezioa du, eta 64 eurokoa tarifa bereziko onuradunentzat (65 urtetik gorakoei, Orkestrako beste zikloetako abonatuak, Kursaal Eszenako abonatuak, Kutxabankeko K26 eta K26+ txartelen Titularrei, Eureka! Zientzia Museoko lagunei eta Musikene). Jada eskuragarri dago Orkestraren bulegoetako telefonora deituz (943 01 32 32) edo www.euskadikoorkestra.eus webguneko Abonatuak profilean dagoen inprimakia bidaliz.

Sarrera solteak, berriz, irailaren 15ean jarriko dira salgai, 7 euroko prezio bakarrean, www.euskadikoorkestra.eus eta www.kutxabank.es webguneetan, Kursaal Auditorioko leihatilan eta, aforo librerik balego, Orkestraren egoitzako leihatilan bertan erosi ahalko dira.

Miramonera autobusez. Euskadiko Orkestrak Matinéetako publikoaren esku doan jartzen duen autobus zerbitzua da Miramongo egoitzara heltzeko biderik erraz eta erosoena. 10:25etan abiatzen da Gipuzkoa Plaza 4tik eta geldialdiak egiten ditu Antso Jakituna 18 eta Madrilgo Hiribideko 34ean.

Irailaren 24 larunbata: hasiera

Tantris Ensemble, ganbera orkestra Carlos Ocaña, zuzendaria

Denboraldi honetako lehenbiziko kontzertua hasiera izango da zentzu bikoitzean: Miramongo Matinéen txanda berri baten abiapuntua izango da eta, era berean, Carlos Ocaña musikariaren orkestra zuzendari ibilbidearen lehenengo urratsetako bat izango da; eta Euskadiko Orkestrako musikariek osatutako ganbera orkestra izango du lagun.

Topaketa berezi honek ezin hobeto irudikatzen du Miramongo Matinéen oinarritzko euskarrietako bat den helburua: Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kideen esku jartzea eszenatoki egokia bestelako errepertorioak arakatu eta interprete gisa garatzea ahalbidetuko dieten programak diseinatu ditzaten, beren eginkizun sinfonikotik at. Horrela, musika ezohikoa helarazten diete entzuleei, gertu eta modu pedagogikoan, musikariek beraiek egitarauari sarrera labur bat egiten baitiote.

Horrela agertzen du Carlos Ocaña biolinista eta zuzendariak hitzordu honek zer garrantzi duen bere ibilbidean:

“Niretzat oparia da Orkestrak hain denboraldi bereziaren irekiera zuzendu dezadan onartu izana. Asko estimatzen diot, batetik, Irene Echevesteri, berak luzatu baitzuen proposamena, eta baita zuzendaritzari ere; eta biolinista lana orkestra zuzendaritza ikasketekin uztartu ditudaneko azken lau urte hauengatik aitortza legez hartzen dut. Gainera, Musikenen ikasle garaia eta orkestra zuzendari ibilbidearen hasieraren arteko lokailua izango da. Izan ere, aurten egin baitut azken azterketa.

Behar bada, arraroa gerta daiteke goizez atrilean biolina jo eta arratsaldean podiumean aritzea, baina hainbeste denbora da horretan dihardudala, erabateko normaltasunez egiten dudala. Hain kalitate goreneko musikari talde bat zuzentzea berebiziko erronka da eta ilusio handiz heldu diot horri. Kontzertu hau prestatzeko garaian, nire lankideek ezin hobeto erantzun dute eta pozez bete nau horien jarrera baikorrak. Lagungarri gertatu da, ziur, aukeratutako errepertorioaren edertasun paregabea”.

Musika amaigabea formatu txikian. Gure musikarien proposamenak

Euskadiko Orkestrako musikariek Miramongo Matinéetan proposatzen dituzten egitarauak berezitasun bat gehiago dute: ondoren entzuleen aurrean aurkeztuko diren lekuan bertan sortzen direla, haien etxea den egoitzako eszenatokian, alegia. Han entseatzen dute, bai EOSen kide legez eta baita ganbera musikari gisa ere.

Datozen hilabeteotarako, Orkestraren baitan sortutako taldeek musikaren historiako oso bestelako partiturak hautatu dituzte eta askotariko hariei jarraiki uztartu dituzte elkarren artean: aroak, lekuak, inspirazio iturriak, sortzaileen arteko harremanak,... eta horien ondorio dira

“Américas”, “Lacrymosa”, “Azken erromantikoen kinteto handiak”, “Elkartze hunkigarri baten historia”, “Musika ikasitiko amerikar kantuko herrikoietara”, “Bachentzako inspirazioa”, “Flautak airean edo flauten zurrumurrua”, “Bach: Fugaren artea”, “Gernika 80” eta abar izenburudun kontzertuak. Musika barrokoa, klasikoa, erromantikoa eta garaikidea hizpide duten emanaldi horiek entzuleei helaraziko dizkiete pianoa, klabea, klarineta, oboea edo akordeoia lagun izango dituzten hari taldeek, flauta laukote batek eta abarrek.

Miramongo topagune

Oro har, artea eta musika, bereziki, bizikidetzarako eragileak dira, pertsona eta diziplinen arteko topaketarako espazioak. 25 urteotan, Miramongo Matinéek bere egin dute espiritu hori eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitzako eszenatokitik igaro dira, esaterako, nazioarteko bakarlari (bakarka edo Orkestrak lagunduta) eta musika literaturarekin, dantzarekin edota zilindrada handiko motor baten durundarekin bat eginik aurkeztu duten muntaiak.

Zentzu horretan, denboraldi honetarako Miramongo Matinéek “Bertsu berriak jartzera nua”, proiektua sustatu dute. Tradiziozkoa, klasikoa eta garaikidea dena batzen dituen egitasmoa da, euskal kultur ondarean sustraizutakoa. Horren egileetako bat den Mikel Chamizo konpositoreak honela aurkezten du: “hutsa jautzia da, bertsolaritzatik musika klasikora, eta alderantziz”. Errenazimenduko eta barroko garaiko piezak sorkuntza berriekin nahasten ditu ikuskizunak; bost soinu esperimendu izango dira eta horietarako hari hirukote bat (EOSeko kideek osatutako Sincronía hirukotea), pianoa eta musika elektronikoko tresnak baliatuko dituzte. Maialen Lujanbio bertsolaria funtsezkoa izango da ariketa hori gauzatzeko.

Halaber, Matinéek orkestra gonbidatu bat hartuko dute berean: Orchestre de Pau Pays de Béarn. Bere zuzendari titular Faïçal Karouiren gidaritzapean eta Hildegard Fesneau biolinista bakarlari gonbidatu duela aurkeztuko da Miramongo. Donostia 2016ren “Elkarriketak” ildoaren baitako kontzertu hau aurrerapausu bat da Miramongo Matinéen historian, zikloa gure lurraldetik kanpoko orkestrei irekitzen baitaie horrela.

Azkenik, Euskadiko Orkestraren ganbera zikloak nazioarteko musikarien bisita jasoko du: Birgit Kolar, Vienako edo BBCko orkestra filarmonikoetan nahiz Municheko Irratiko Orkestran lehenengo biolin aritzen den biolinista Veronika Trisko pianistarekin batera izango da Miramongo. Eta ziklo honetan ohikoa den abesbatzarako musika Donostiako Orfeo Gaztearen eskutik helduko da oraingoan.